

kultur leihoa • kultur leihoa • kultur leihoa

ezagutzen al
duzu Donostia?

Puyuelo

Alde Zaharrekoak ez direnek ez dute hain zaharra den toponimo hau ezagutzen, Puyuelo kalea Fermin Calbeton bezala ezagutzen baita egun. Izena galdu arren, hau dugu Donostiako kalerik zaharrena: 1.338. urtean aipatzen da jadanik. Urte hartan izan zen sutea kale honetan hasi zen.

Izen berezi hau nondik datorren galdetuko duzue: bada, kale hau «Puyo» (*) batera igotzen zen, eta igotzen da. Perjuantxo eta Kanpandegi kaleetara alegia, Mari kalera heltzen denean portua ikusten dela.

Donostia zaharrean, 1813 aurretik, leku honetan arku bat zegoen, «puyo» honen gainean, «Santiagoko arku» deitua, pertsona bat pasatzeko adinakoa. Orain, lehen bezalaxe, kale nagusitik gora igotzen da kalea. Inguru honi guztiari «Puyuelo Alto» deitzen zitzaien, eta Kale Nagusitik Bretxaraino, aldiz, «Puyuelo Bajo». Bigarren zati hau izendatzeko Apaiz-Kalea, Bildosola kalea (desitxuraturuta «Diosala» -agurra-kalea) edo Harategi kalea izenak ere erabili ohi ziren.


Honela izan zen mende luzeetan zehar, baina 1919. urtean Udalak kale honi «Calle de Fermin Calbetón» jartzea erabaki zuen. Fermin Calbeton diputatua, ordurako hila, kale honetan jaioa baitzen.

Luis Murugarren jaunak Donostiari buruz egindako monografikoan izendatzen ditu Fermin Calbetonek



Argazkia: Oier Los Santos

«Puyuelo» kalea Kale Nagusia eta Kanpandegi kalea artean.



Argazkia: Oier Los Santos

«Lasala-Calbetondarren oroitarría Puyuelo kalean.

zituen karguak: korteetako diputatu, «Gracia y justicia» delako idazkariorde, «Fomento» ministrari, Aita Santuaren aurrean enbaxadore; gainera, hainbat akademia eta komisiotako bazkide zen. Dena den, Pio Barojak ez zuen eritzi onik pertsonaia honetaz: «*Político mostrenco y vulgar*» dio berak. Gaur egun Puyuelo kalea oso bisitatua dugu, bi doze-

natik gora ostatu izanik...

(*) Puyo: mendiska, muinoa; beraz Puyuelo: mendiska ttikia, muino ttikia. Badugu Amara auzoan Puio izeneko mendia, Tafallatik hurbil Pueio herria, Pui-ko ama birjina Lizarran, Puyoo herria Biarnon... Dirudien ez izena gaskoinatik Donostiara etorria da.

TESTUA: JOSU TELLABIDE.

La Casa
del Café

Juan Iriondo S.A.
DONOSTIA

